

---

## HERNANI. UDAL AURREKONTUAK 2016: Proposamenak lehenesteko saio irekiak

---

-2015-09-23. SAIOAREN AKTA-



### **BILERAREN XEHETASUNAK:**

- Bilera zenbakia: 1
- Xede taldea: Kultura, Ondarea, Euskara, Kirola.
- Data: 2015-09-23
- Lekua: Biteri Kultur Etxea
- Hasiera ordua: 18:00
- Amaiera ordua: 20:00

### **DINAMIZAZIOA:**

- Parte hartzaile kopurua: 6 herritar, 5 gizon eta emakume 1. Teknikari 1 eta 4 ordezkari politiko.
- Dinamizatzaileak: Markel Ormazabal eta Maitane Barrenetxea

## 1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Luix Intxauspe Alkateak saiora bertaratutakoei ongi etorria egin die. Erabaki Hernani Decide prozesuak azken fase erabakitzaileari ekin dio uda ondotik. Herritarren artean Udal Aurrekontuko 500.000€ eztabaidatu eta erabakiko dira.

Prozesu hau garatzeko Aztiker Soziologia Ikergunea ari da dinamizazio lanetan, beraiek dira prozesu honen metodologia prestatzeaz arduratu direnak.

Alkatearen aurkezpenaren ostean Maitane Barrenetxea Aztikerreko teknikariak gaurko saioaren nondik norakoak azaldu ditu:

1. **Aurkezpena eta prozesuaren errebasoa:** Alkateak eta Aztikerreko teknikariak prozesu osoaren errebaso labur bat egingo dute.
2. **Egindako proposamenen balorazioak** (Udal teknikariek eta ordezkari politikoeak egin dituztenak) azalduko dira
3. **Proposamenak lehenesteko ariketa:** 500.000€ek ez dute proposamen guztiak egiteko aukera ematen, eta beraz, lehendabiziko "filtroa" pasa beharko diegu proposamenei, gaur landuko ditugunen erdiek aurrera egingo dute, eta beste erdiak prozesutik kanpo geratuko dira.
4. **Hurrengo urratsak eta balorazioa:** bilera ireki honen ondoren geratzen diren urratsak azalduko ditugu, eta gaurko saioaren balorazioa egingo dugu.

Prozesuarekin zerikusia duten beste hainbat datu azaldu dira Aholkularitzatik.

### NON GAUDE?

- Prozesuaren lehendabiziko fasean Udal **Aurrekonturako proposamenak** egin genituen, apirila eta maiatza artean. Guztira hernaniarrek 136 proposamen egin zituzten.

- **2.fasea, Balorazioa:** 136 proposamen hauek hartu eta Udal ordezkari politikoeak eta teknikariek baloratu egin dituzte. Uda osoa izan dute proposamen hauek denak baloratzeko.

- **3.fasea, Lehenetsi:** 500.000€ek ez dute hemen ateratako proposamen guztiak aurrera ateratzeko ematen, eta beraz, proposamenen artean aukeraketa bat egin behar da. Aukeraketa hau ez da norberaren nahien arabera egingo, Hernanik dituen beharren arabera baloratuko ditugu, eta horren arabera lehenetsunak ezarri.

- **4.fasea, hautaketa:** proposamenak lehenesten ditugunean, garrantzia handiena hartu duten 30 proposamenekin eskuorri bat egingo da, eta etxez etxe banatuko da, norberak


etxean bere gustukoena aukeratu ditzan.



## 2. PROPOSAMENEN ERREPASOA

Proposamen guztiak baloratu egin dituzte Udalean, eta hauetako batzuk prozesutik kanpo geratu dira. Proposamenak kanpo gelditzeko arrazoiak azalduko dira lehendabizi, eta ondoren, kanpoan geratu diren proposamenak eta hauen arrazoiak aurkeztuko dira.

- ❖ **Jasotako proposamen batzuk ez dira Udalaren kompetentziakoak**, Eusko Jaurlaritzarenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, edota beste hainbat erakunderenak izan dira, hori dela eta ezin ditugu Udal Aurrekontuaren barnean txertatu
- ❖ **Udalaren eskumen edo kompetentzia direnek aurrera egin dute**. Proposamen hauen artean,
  - Dagoeneko aurtengo Aurrekontuan sartuta edo egitea **aurreikusita zeuden proposamenak** egon dira, esaterako, Plaza Berriko lurra konpontzea eskatu da, eta hori dagoeneko egin da. Beraz, aurrekusiak zeudenak kanpo geratu dira.
  - **Aurtengo Aurrekontuan aurreikusi gabe zeuden proposamenek**, aurrera egin dute. Hala ere, aurrekontuan sartuta ez zeuden proposamenen artean,
    - Batzuk **kudeaketarekin zerikusia** dute, hau da, proposamen batzuek ez dute aurrekontu jakin bat behar, baizik eta dagoeneko egiten diren gauzetan aldaketak egitea eskatu da. Horrelako proposamenek aurrekonturik behar ez dutela baloratuta, prozesutik kanpo geratu dira.
    - **Teknikoki bideragarriak ez direnak eta 500.000€ak** gainditzen dituztenak ere kanpo geratu dira.
    - Beraz, **aurrera egin duten proposamenak aurrekontu zehatz bati lotutakoak** izan dira.



Aurtengo proposamenei dagokionean, datu orokor batzuk aurkeztu dira ondoren:

- ❖ Jasotako proposamen kopurua: **136**
- ❖ Balorazio tekniko eta politikoetan kanpo: **84**
  - Udalaren eskumena ez direnak: 18
  - Errepikatuak: 4
  - Aurreikusita dago: 10
  - Kudeaketa: 39
  - 500.000€ baina gehiago: 3
  - Beste: 3

Azalpen honen ostean, Luix Intxauspe alkateak kanpoan geratu diren proposamenak eta kanpoan geratzearen arrazoiak azaldu ditu:

|  <b>AURREIKUSITA DAGO ]</b>  |  <b>KUDEAKETAREKIN ZERIKUSIA ]</b>  |  <b>500.000€ BAINA GEHIAGO ]</b>  |
|---|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Polikiroldegiko aldagelak eta instalazioak konpondu</li> <li>◆ Udalak 12 karpa tolestagarri erostea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Frontoi publiko estali bat, jada dugun frontoiren bat estaltzea.</li> <li>◆ Adecuación del local municipal de Perkaiztegi 6, cedido al CD Hernani.</li> <li>◆ Milagrosa Kapera txukuntzea. Hezetasunak eta goterak konpondu eta eraikuntzaren fatxada txukundu.</li> <li>◆ Urte zaharrean Txaranga jartzea, aspaldiko ohiturak jarraituz!</li> <li>◆ Kafe antzoki moduko bat sortzea Hernanin</li> <li>◆ Recuperación, arreglo y recolocación del único letrero de "Hernani" que queda en Hernani en Lizeaga 9 (Paisak etxea) de los que la Diputación colocó, en cerámica, en los pueblos de Gipuzkoa a comienzos del siglo XX</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Un auditorio en buenas condiciones</li> <li>◆ Abe Maria parkeko etxea berritu erabilera kulturalak emateko</li> </ul> |

|                          |   |
|--------------------------|---|
| AURREIKUSITA DAGO        | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Polikiroldegiko aldagelak eta instalazioak konpondu</li> <li>- Udalak 12 karpa tolestagarri erostea</li> </ul>   |
| KUDEAKETAREKIN ZERIKUSIA | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Frontoi publiko estali bat, jada dugun frontoiren bat estaltzea.</li> <li>- Adecuación del local municipal de Perkaiztegi 6, cedido al CD Hernani.</li> <li>- Milagrosa Kapera txukuntzea. Hezetasunak eta goterak konpondu eta eraikuntzaren fatxada txukundu.</li> <li>- Urte zaharrean Txaranga jartzea, aspaldiko ohiturak jarraituz!</li> <li>- Kafe antzoki moduko bat sortzea Hernanin</li> <li>- Recuperación, arreglo y recolocación del único letrero de "Hernani" que queda en Hernani en Lizeaga 9 (Paisak etxea) de los que la Diputación colocó, en cerámica, en los pueblos de Gipuzkoa a comienzos del siglo XX</li> </ul> |
| 500.000€ BAINO GEHIAGO   | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Un auditorio en buenas condiciones</li> <li>- Abe Maria parkeko etxea berritu erabilera kulturalak emateko</li> </ul>  |

Galdera erantzunetarako tartea ireki da ondoren:

- *Hernani Rugby taldeko ordezkariak azaldu dute gaizki ulertu bat egon dela. Beraiek egindako proposamenetan lehendabizikoa zelai nagusiko argiteria hobetzea eta indartzea zela adierazi dute. Baina ondoren, proposamenen balorazioak jaso dituztenean, konturatu dira argiteria ez dela kontuan hartu, edo ez dela baloratu. Adierazi dute ez dakitela euren akatsa izan den, edo Udalarena, baina beraientzat proposamen garrantzitsuena, bigarren zelairako bidexka edota harmailak baina gehiago, zelaiaren argiteria dela. Udal ordezkariak erantzun dute jatorrizko proposamena begiratuko dutela, ikusteko akatsa non egon den. Kontsulta hau egin ostean harremanetan jarriko dira eta argituko dute.*

### 3. LEHENTASUNAK

Proposamenen balorazioak aurkeztu ostean, bilera irekiaren atal nagusiari ekin zaio, proposamenak lehenesteari, alegia.

Proposamenak lehenesteko, bi irizpide nagusi aurkeztu dira, eta proposamen guztiak horien arabera baloratuko dira lehendabizi. Irizpideak honakoak izango dira:

- **Proposamen honek gure eguneroko bizitza errazten du?**
- **Proposamen honen kostua – onura orekatua da?**



| PROPOSAMENA                    | 1  | 2  | TEPISMOALA |
|--------------------------------|----|----|------------|
| BITERIKO EKIPOA                | 5  | 5  | •••••      |
| MUSIKA EKIPU BERRIA            | 7  | 11 | •••••••    |
| KARROZENTZAT LOKAIA            | 0  | -3 |            |
| IBURU KONTAKETA                | 6  | 5  | •          |
| "ANTIGRAFFITI" TRATAMENDUA     | 0  | 2  | ••         |
| INTERPRETATZAILEAREN MALETA    | 8  | 6  | •          |
| KIROLDEGIAN TAKILAK KAFETEGIAN | 2  | 6  |            |
| ZUBIPEN HOBEKUNTZAK            | 2  | 2  | ••         |
| LANDAREN HOBEKUNTZAK           | 5  | 6  | ••         |
| ATLETISMO PISTA BERRITU        | 4  | -4 |            |
| PADELEKO PISTA                 | -4 | -4 |            |
| FITNESS PARKEA                 | 2  | 3  | •          |

Proposamen guztiak banan banan azaldu dira, eta herritar bakoitzak irizpide horien araberako puntuazio bat eman dio proposamen bakoitzari.

Bi irizpide horien ostean, bertaratutako bakoitzak 3 gomets jartzeko aukera izan du gustukoen zituen proposamenei.

Taula honek balorazio eta puntu guztiak jasotzen ditu:



| <b>KULTURA eta ONDAREA</b>  | <b>Eguneroko bitzitza errazten du</b> |   | <b>Kostua – onuraren arteko oreka</b> |    | <b>Pertsonala</b> |     | <b>Guztira</b> |
|---|---------------------------------------|---|---------------------------------------|----|-------------------|-----|----------------|
| <b>Biteriko areto nagusiko ekipoak errebisatu eta behar izanez gero berritu: soinu-ekipoa, nahasketa-mahaia, proiektzio-ekipoa, argiztapena, mikrofonoak...</b>   | 1,1,1,-1,1,1                          | 5 | 1,2,2,-1,1,0                          | 5  | 4                 | 2   | <b>12</b>      |
| <b>Udalak musika ekipo bat erostea, bai udal ekimenetarako, baita herriko eragile sozial ezberdinek antolatzen dituzten ekimenetarako</b>                         | 1,1,1,2,1,1                           | 7 | 2,2,2,2,1,2                           | 11 | 5                 | 2.5 | <b>20.5</b>    |
| Karrozak egiteko lokal egoki baten beharra, azalera handikoa, karrozak bertan prestatzeko aukera emango duena, eta bertara sartu eta ateratzeko zailtasunik gabe. | 0,1,0,-1,0,0                          | 0 | -1,1,-1,-1,0,-1                       | -3 | 0                 | 0   | -3             |
| <b>“Ipuin kontaketa” maiztasun handiagoarekin eta asteko egun ezberdinetan</b>  | 2,0,1,1,0,2                           | 6 | 1,0,1,1,0,2                           | 5  | 1                 | 0.5 | <b>11.5</b>    |
| Kaxko historikoko hainbat eraikin “antigrffiti” tratamenduarekin garbitu eta margotzea  | 0,0,0,-1,0,1                          | 0 | 0,0,1,-1,0,2                          | 2  | 2                 | 1   | 3              |

| <b>EUSKARA</b>   | <b>Eguneroko bitzitza errazten du</b> |   | <b>Kostua – onuraren arteko oreka</b> |   | <b>Pertsonala</b> |     | <b>Guztira</b> |
|--|---------------------------------------|---|---------------------------------------|---|-------------------|-----|----------------|
| <b>Interpretatzailearen maleta. Maleta honen bidez, hizkuntza ezberdinetako ALDIBEREKO ITZULPENAK egiteko aukera izango genuke. Bilera askotan, nahiz eta partaide gehienak euskaldunak izan, gutxi batzuegatik gaztelaniaz egiten da eta hori ekiditeko proposamena izango litzateke interpretatzailearen maleta.</b> | 1,1,1,2,1,2                           | 8 | 2,1,2,-1,1,1                          | 6 | 1                 | 0.5 | <b>14.5</b>    |

| <b>KIROLA</b>   | <b>Eguneroko bitzitza errazten du</b> |    | <b>Kostua – onuraren arteko oreka</b> |    | <b>Pertsonala</b> |     | <b>Guztira</b> |
|---|---------------------------------------|----|---------------------------------------|----|-------------------|-----|----------------|
| <b>Kiroldegiko kafetegi inguruan takilak ipintzea, gurasoak seme-alaben gauzeekin alde batetik bestera ibili beharrean, ikastaroaren zain daudenean gauzak txukun uzteko aukera izateko.</b>  | -1,0,0,1,1,1                          | 2  | 0,0,2,0,2,2                           | 6  | 0                 | 0   | <b>8</b>       |
| Zubipen hobekuntzak egitea: Zelaiko hesia kendu eta berria jartzea proposatzen da. Argiteria aldatu da, aldagelak aldatzeaz daude.  | 0,1,2,-1,0,0                          | 2  | 0,1,2,-1,0,0                          | 2  | 2                 | 1   | 5              |
| <b>Landare tokiko errugbi guneko berrikuntzak: Eserlekuen hedapena, gaur egun 250 eskerleku estalitak daude gradetan, eta 120 gehiagora zabaltzea; Bidetxo bat egin lehengo zelaitik bigarrenera, gaur egun lokatza delako; Zelaia txukun/garbi mantentzeko, makinariaren beharra dago.</b> | 2,2,1,-1,0,1                          | 5  | 2,2,1,-1,1,1                          | 6  | 2                 | 1   | <b>12</b>      |
| Atletismoko pista berritzea. Pista konkorez beteta dago, belardia, zuloz beteta eta erorketak eman daitezke dagozkien lesioekin.  | 1,1,1,-1,1,1                          | 4  | -1,0,-1,-1,-1,0                       | -4 | 0                 | 0   | 0              |
| Padeleko pista  | -1,-1,0,-1,-1,0                       | -4 | -1,-1,-1,-1,0,0                       | -4 | 0                 | 0   | -8             |
| Espazio publikoan, parke edo plazaren batean fitnessa eta giharrak lantzeko tresnak jartzea   | 0,-1,1,1,0,1                          | 2  | 0,-1,0,1,1,2                          | 3  | 1                 | 0.5 | 5.5            |

Balorazio altuena jaso duten proposamenek aurrera egingo dute prozesuan (erdiek gutxi gorabehera), eta beraz, etxeetan jasoko dugun diptikoan agertuko dira. Puntuazio baxuena jaso dutenak berriz, prozesu honetatik kanpo geratuko dira.

Saioarekin amaitu aurretik, hainbat ekarpen jaso dira:

- Proposamenen inguruan eztabaidatzearen garrantzia azpimarratu da. Izan ere, saio hauek duten balioa proposamenen inguruan eztabaidatzea eta irizpideek sorrarazten dizkiguten zalantzak agertzean datza. Eztabaidaren bitartez, elkar ulertzera iritsiko ginateke, eta ziurrenik proposamen bakoitzaren irizpideei balorazio antzerakoa jarriko genieke. Horrela, guztion artean gaurko proposamenetatik garrantzitsuak direnak adosteko gai izango ginateke.
- Zubipeko proposamenarekin desadostasuna agertzen da. Izan ere, hasierako proposamenak interbentzio integral bat eskatzen zuen: zelaiaren hesia, harmailak, bulegoak eta aldagelak. Balorazioak jasotzen duen gauza bakarra zelaiaren hesia da, eta aldagelan besaulki berriak jarriko direla. Bi ekarpen horiek ez dituzte Zubipeko beharrak aseko: aldageletako baldosak erori egiten dira, harmailen estalkitik ormigoi zatiak erortzen dira... egoera penagarria da.
- Rugby taldeko ordezkariak euren behar nagusia den argiteria kontuan hartzeko eskatu dute. Gaizki ulertua non egon den aztertu eta proposamena sartzeko aukera kontuan izan dadila.
- Balorazioak ikusi ostean, Kultura Zinegotziak hitza hartu du Musika ekipoaren proposamenaren inguruan argipen bat egiteko: 1.000€ko proposamen bat izanik, kontuan izan musika ekipo horrek bi bafle izango dituela, eta mikro pare bat. Badaezpada azpimarratu nahi du, gero hori aurrera aterako balitz ez dadin gaizki ulerturik egon.



#### 4. HURRENGO URRATSAK (10')




---

Gometsen ondoren, saio irekiekin amaitzerakoan geratzen diren urratsak zeintzuk izango diren azalduko da:

- Proposamen horiekin galdetegia diseinatuko da, lehenetsitako proposamenak kontuan hartuta.
- Galdetegiak bilduko dituen proposamenak auzoetan aurkeztuko dira (8 saio), eta horretaz gain, etxeetako postontzietan banatuko da eta internetetik egiteko aukera ere egongo da.
- Hautatutakoak zeintzuk diren azaltzeko aurkezpen publiko bat antolatuko da.

#### 5. SAIOAREN BALORAZIOA

---

|   | LAN EGITEKO MODUA | BILERAREN EDUKIAK | BILERAKO GIROA |
|---|-------------------|-------------------|----------------|
|  | XXXXXX            | XXXXXX            | XXXXXX         |
|  |                   |                   |                |
|  |                   |                   |                |